


Euskal AEko eraikuntzaren sektorea %8,0 hazi zen 2005eko bigarren hiruhilekoan

Eraikuntza azpisektorea %8,3 hazi zen eta obra zibila %7,3

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2005eko bigarren hiruhilekoan, lan egutegi homogeneoan %8,0 hazi zen Euskal AEko eraikuntzako jardura, termino nominaletan, 2004ko hiruhileko beraren aldean.

Hiruhilekoak euren artean alderagarriak izan daitezzen urtaroen eraginak zuzenduta, aurtengo bigarren hiruhilekoan eraikuntzaren jardura %0,9 murriztu zen 2005eko lehen hiruhilekoaren aldean, eta %3,4koa izan zen aurreko hiruhileko arteko tasaren oso azpitik kokatu zen.

**Euskal AEko Eraikuntzaren Kointurako Indizearen
urte arteko hiruhilekoko hazkunde zuzendua**



Iturria: Eustat

2005eko bigarren hiruhilekoan izandako eraikuntza-sektorearen bilakaera positiboa gehiago oinarritu zen *eraikuntza* azpisektorean, *obra zibila* azpisektorean baino. Izan ere, lehenak urte arteko %8,3ko igoera izan zuen, eta bigarrenak, berriz, %7,3koa, lan-egutegiaren eraginak zuzendu ostean.

Hiruhileko arteko terminoetan, 2005eko bigarren hiruhilekoko sektorearen jardura 2005eko lehenengo hiruhilekoan izandakoarekin alderatuta, *eraikuntza* azpisektoreak %0,7ko bilakaera positiboa izan zuen eta *obra zibilak*, aldiz, %4,4 murrizketa, egutegiaren eraginak zuzenduta.

2005eko bigarren hiruhilekoan, eraikuntzaren sektoreko enplegua %0,4 gehitu zen, datu gordinetan, aurreko urteko hiruhileko berdinen aldean, eta %0,4ko hiruhileko arteko hazkundera lortu zuen, 2005eko lehenengo hiruhilekoaren aldean, hiruhilekoko datuak urtaroen eraginez zuzendu ondoren.

Taula: 2005eko 2. hiruhilekoa. Euskal AEko Eraikuntzaren Koiuntura Indizearen aldakuntza-tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazionalizatua	
	2.hir.05/2.hir.04	At/At-1 (1)	2.hir.05/1.hir.05	1.hir.05/4.hir.04
Produkzioaren indizea	8,0	7,9	-0,9	3,4
Eraikuntza	8,3	9,1	0,7	3,7
Obra zibila	7,3	5,2	-4,4	2,8
Landunen indizeak	-	-	0,4	0,1

(1) t urteko urtariletik t urteko azken hiruhilekora arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi beraren aldean

Iturria: Eustat

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxe: +34-945 01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Perez Aja

Tel.: +34-945 01 75 06. Faxe: +34-945 01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp